BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3459

AGINDUA, 2015eko uztailaren 22koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2015-2016ko ikasturterako planifikazioa aldatzea ebazten duena, eta 2014-2015eko ikasturterako Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Hezkuntza Bereziko zenbat unitate itunduko diren zehazten duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko maiatzaren 21eko Aginduak inprimaki hauek onartzen eta jakinarazten ditu: batetik, itunpeko ikastetxeek 2015-2016ko ikasturterako planifikazioaren aldaketa eskatzeko direnak, eta, bestetik, 2014-2015eko ikasturterako itundu beharreko gela-kopurua finkatzeko direnak.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko irailaren 19ko Aginduak 2015-2016ko ikasturterako planifikazioa aldatzea ebazten du, eta 2014-2015eko ikasturterako Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Hezkuntza Bereziko zenbat unitate itunduko diren zehazten du.

Huts bat atzeman da Donostiako ARANS-GUI HBIP ikastetxearen itunean, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuaren 18.2.c) artikuluari jarraikiz, zuzendu egingo da agindu honen bidez

EBAZTEN DUT:

Aldatzea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko irailaren 19ko Agindua, 2015-2016ko ikasturterako planifikazioa aldatzea ebazten duena, eta 2014-2015eko ikasturterako Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Hezkuntza Bereziko zenbat unitate itunduko diren zehazten duena, haren III. eranskina aldatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 22a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

Hau dio:

III. ERANSKINA

GIPUZKOA

Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren izena	Modulua	Gelak	Eredua	Euroak
Donostia	CPEE Arans-Gui HBIP	Hezkuntza Berezia 2 HI	Zentzumen- Urrituak	Osoa	12		957.154,80

Hau esan behar du:

III. ERANSKINA

GIPUZKOA

Herria	Ikastetxea	Maila	Moduluaren Izena	Modulua	Gelak	Eredua	Euroak
Donostia	Arans-Gui HBIP	Hezkuntza Berezia 2 HI	Zentzumenekoak	Osoa	2		159.525,80
		Hezkuntza Berezia 2 HI	Zentzumenekoak	Osoa	5		349.546,60
		Hezkuntza Berezia 2 HI	Zentzumenekoak	Osoa	1		22.018,42
		Hezkuntza Berezia 2 HI	Zentzumenekoak	Osoa	4		191.563,68